


743R

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
5n. ZENBAKIA

ABENDUA
— 1977 —





70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO
ONDO ERANTZUTEN DAU

EKONOMI-ARAZOA BERO

LEGE BARRIA

España Lateralriko ekonomi-arazoa bero dago eta bere berotasunaren maillak geroago ta goragokoak dira, zori txarrez.

Lege edo plangintza barria sortu da oraintsu Madrid'eko Moncloa'n eta eginbide ori alderdi politiku guztien ordezkariak, Letamendiak izan ezik, izenpatu dabe.

Askorentzat pozbide bat izan da ori, baiña emen gure inguruan ez da agiri olako poz aundirik.

España'tarrak itxaropentsu ei dagoz, baiña euskaldunak ez ainbeste.

Arazo bildugarria, benetan, ekonomi-arazoa! Eta guztioi ardura dauskuna!

* *

POLITIKA-ALDAKUNTZEA

Ekonomi-gaiso izugarri au ezin osatu leike, ploitika-gaisoa osatu barik.

Ez dogu ukatu bearke, politikan aldakuntza batzuk izan diranik, baiña oraindiño bide luzea da egiteko dagoana. Eta bide ori egin arte, ez da ikusten ekonomi-gaisoaren urtenbiderik.

Begiratu dagigun Euzkadi.

Buru-jabetza zabala lortu arte, edo askatasun osora eldu arte, ez dago gure ekonomi-gaisoarentzat osasun benetakorik.

Buru-Jabetza lortu ezkerre, España laterriari lotuta gagozen artean, gure aberriari, itun ondo aztertua bide dala, zerga bat ezarriko leuskioe, ortik kanporako erri-irabazi guztiak geure esku dirala.

Aberri-dirua euren esku izateak poztuko leukez euskaldunak eta gure lan-gogoa bizkortuko litzake. Baiña nork urtenbidearen amesik, onenean be, dana erbestera ba'doa eta andik ondakiñak artzen ba'doguz?

* *

GIZARTE-ALDAKUNTZEA

Lantegia bera da, oso-osoa aldatu bear dana.

Kapitalismoak sortu dauan lantegi onetan, langilleak ez dauke zor jaken nortasunik, ez eskubiderik eta ateraten diran ondasunen banaketea be ezin izan zuzena, edo izanda be, ezin agertu bere zuzentasun ori.

Lantegietan langilledia izan bear da arduradun edo lantegiaren jabe izan ezkerre obeto. Sozialismoaren bidetik sartu bear dabe lantegiak eta kapitalismoak bere azkena ikusi bear dau.

Bide luzea orretara eltzeke ibilli bear dana, luzea Euzkadi'n, luzeagoa mundu zabalean. Baiña Euzkadi'ren kondairan ba dagoz olako ereduak, arrokeri bakoak, baiña ereduak.

Gizonaren nortasuna zaintzeko ez da agiri bide egoki lez lantegi guztiak laterri-ratzea, marxismoak ezkatzen dauan lez, baiña lantegi indartsuenak laterri-ratzea bearrezkoa izan leiteke demokrazia ta sozialismoa aurrera atera bear ba'dira.

Demokrazia bear dan lez oiñarrituta egon ezkerre, laterri-ratze oneik ugariagoak izan leitekez, baiña bide ori ziurra ez ba'da, lagillediak len baiña arerio gogorragoa izango leuke: Len kapitalismoa, orain laterri gogorra, aginpide estua.

* *

GIZARTE-ARDUREA

Alan zein olan, bide batetik naiz bestetik, gizonaren barruan gizarte-ardurea sortu bear dogu, ekonomi-erazoa bideratu gura ba'dogu.

Zalan lortu ori?

Gizonari, erri-tarrari, emen euskaldun bakoitxari, bere ardurak artuazoz.

Bere ardurak politikan: Auzoan, errian, errialdean, laterrian... sartuazoz.

Bere ardurak gizartean: lantegiko ta ekonomiaren arazo sakonak bereak dirala ulertuazoz.

Orretarako bide egokia ez da izango, legeak egitea. Ez. Askoz ohea izango da bere lanaren frutua, politikan eta ekonomian, berak ikustea.

Gizona bere buruaren jabe agiri danean, politikan eta ekonomian, eta ez tramankulu aundiaren zatitxu bat lez, orduan billatu al izango jakoz urtenbideak eta osasun-bideak ekonomiaren gaiso larriari.

EUSKEKAZALEAK BATZARREAN

BATZAR NAGUSIA

Bazkun guztiak egin bear izaten dabe urtero euren Batzar Nagusia: Ekintzak aztertu ta bazkideai agertu, diru-arazoak argitu, arduradun barriak aukeratu, bazkideen itaunai erantzun egokia emon... ara, Batzar Nagusi bateko zeregiñik audieniak.

EUSKERAZALEAK alkarteak be urtero egiten dau here Batzar Nagusia eta aurten be egin dau, Karmen'go eleizearen azpian dagon aretoan eta zcmendiaren 3'an.

Ez zan Bazkide asko agiri aretoan. Oso gitxi.

Aide batetik, aretoa bera non zan be ez zan erreza billatzea, baten batzuk billatu ezinda be, joango ziran. Etxe-gintza lanak sarrerea galazoten eban eta alboko ate bat billatu bear zan.

Gaiñera ordu beratan beste batzar garratzitsu bat, gitxienez, ba egoan, politikarientzat oso garrantzitsua, eta bietara ezin sartu.

Zalantza barik, bazkide askok uste izaten dabe kuota ordaindu ezkeron naikoa egiten dabela, alkartearen aurrepenerako geiago alegindu barik. Alkarte ta bazkun askotan agertzen clan akatza au. baiña guztietatik urrindu barerekoa.

GIZON TXALOGARRIAK

EUSKERAZALEAK alkarteao arduradunak, geienak, alkartearen irasleak * dira, edo lenengoetatik gaur ante arduradun izan diranak.

An agiri ziran, mai-buruan, Oleaga, Montiano ta Zubiri jaunak euren ekiñaldiaren barriak emoteko gertu.

Gizon gogotsuak eta benetako euskera-zaleak oneik eta onein lagunak! Euskerearen izena be gorroto zan aldian, eurak aurpegia emon eben eta Euska-

lerriaren eskubide aundi bat, here izkuntzea erabiltekoa, arduratsu zaindu eben.

Lenengo oinkadak beti izaten dira gatxak: Dirurik ez, etxerik ez, baimenik ez, laguntzailleak billatu bear... Eta oztopo guzti oneik azpiratu eta bide zutenean jarri eben Alkartea gizon txalogarri oneik, eta urteetan iraun azo.

Lan guztia, iñok txalotu barik, omenaldi barik! Euzkadi'k ez dau aiztuko oneik egin daben Ian apal eta onuragarria.

ARDURADUN BARRIAK

Lengo batzar agiria onartu, diru-arazoa garbitu, urteko ekintzak agertu eta gero egitarauaren azkenengo gaia zan, itaunak eta erantzunak, alde batera: Alkartearen arduradun barriak aukeratzea.

'slunitxa'tar Lourdes'ek aurkeztu eban aukeragaien zerrenda bakarra eta bertan egozan guztien autarkiz onartua izan zan zerrenda ori.

Laukietan ikusi daikez irakurleak lengo arduradunak izan diran gizon txalogarrien eta orain ardurea artzen daben barrien izenak eta ardurak.

Aldakuntza au egikeran. **Euskera-zaleak** bazkuneko gurariak oneik izan dira:

- Oraintsu sortu dan giro barri-rako gizon barriak ezarri.
- Asmo barriak izan daikezen gizon barriai bidea idegi.
- Lenean, sailla ezbaridñentan diarduen gizonak sartu Batzordera.
- Gaurko giroan Ian barriak as-rnatzeko erea zabaldu.

Ardura au artu dogunok, Ian egiteko gagoz, baiña lengo arduradun zintzoai eta EUSKERAZALEAK Alkarte onetan bazkide diran guztiai euren la-

guntza eskatzen dautsegu eta ez daukuela ukatuko uste dogu.

LAN SAILLEAK

EUSKERAZALEAK taldeak antxiñatik diardu lanean eta oraintsu be sartu da lan-arlo barrietara.

Euskerea ikasteko esku-liburuak atearatea zan bere Ian bat eta orretan Ian polita-egin dau. Indartu ta aurrera atera biarko da lan ori eta, ,gainera, beste liburu batzutara zabaldu: Esku-liburuak, irakurgaiak, gai sakonagoak... Eta orretarako sariketa batzuk eratzea be ez litzake txarto izango.

Irakaskintza izan da talde onen Ian barezia, euskerea irakastea, eta gaur be eundak dira ikasle barriak. Orretan be ekingo dogu, gure Bilbo onetan euskereak aurrera egin dagian.

KILI-KILI'ri babesa ta laguntza emotea izan da urrengo lana, oraintsu artua. Lan ederra KILI-KILI'k gure umeen alfabetze-bidean egiten dauana!

Eta askenez, oraintsuago artu dauan arloa ZER gure aldizkaria izan da, bazkideen artean eta landa zabalagoan euskal-kultura ta arazoan ardurea sartzeko bidea.

AURRERA BETI

Artutako lan-saille guzti onei eutsi ta indarra emon, lan barriak asmau eta aurreratu, EUSKERAZALEAK erakunde bera sendotu, zabaldu, indartu, orra or ames batzuk.

Orretarako zabalkunde-lana be indartu bearko da, aldizkarietan, irrattietan, izparringietan...

OLAZAR'tar Martin'ek

LENGO ARDURADUNAK:

Landakaria: **Olega'tar Jesus.**
Lendakari-ordea: **Urkijo'tar J. R.**
Diru-zaiña: **Elgezabal'tar Xabier.**
Idazkaria: **Montiano'tar J. Ant.**
Maikoa: **Peña'tar Xabier.**
Maikoa: **Zelaia'tar Adrian.**
Maikoa: **Makua'tar J. M.^o**
Maikoa: **Arandia'tar Miguel.**
Maikoa: **Egurrola'tar Iñaki.**
Maikoa: **Goñi'tar Karmele.**
Maikoa: **Zubiri'tar Iñaki.**

ARDURADUN BARRIAK:

Lendakaria: **Zubiri'tar Iñaki.**
Lendakari-ordea: **Peña'tar Xabier.**
Diru-zaiña: **Dañobeitia'tar Kepa.**
Idazkaria: **Ibarra'tar Bernardo.**
Maikoa: **Olazar'tar Martin.**
Maikoa: **Retolaza'tar José Ant.**
Maikoa: **Egurrola'tar Iñaki.**
Maikoa: **Fernández Karmele.**
Maikoa: **Landajuela'tar Andoni.**
Maikoa: **Arrieta Jauna.**
Maikoa: **Elgezabal'tar Xabier.**

IZENORDEAK

Bitariko izenordeak darabilguz euskeraz. Ikusi:

NI / \EU	NIK / NECK
I / F:U	TG
A / BERA	AREK / BERAK
GU / GEU	GUK / GEUK
ZU / ZEU	ZUK / ZEUK
ZUEK / ZEUEK (ZEUOK)	ZUEK / ZEUEK (ZEUOK)
AREEK / EURAK (EUROK)	AREEK / EUREK (EUROK)

noz erabili bear diran sail bateko ta besteko izenordcok jakitea bearrezko da euskeraz ondo berba egiteko ta idazteko.

Altube maisu aundiak dakazan irakatsien arabera (ikus L'KDERISVIOS liburua, 74 ta 97 orr.), arau au emon daikgu: Esakuntzaren **galdegaia** edo erantzun nagusia **izenordea** bera danean, NEU, EU... NEUK, EUK... saillekoak erabili beitez. Ikusi:

NEU joan naz Bilbora (NOR joan da Bilbora' itaunaren erantzuna: NEU).

—**Atzo ZEUGAZ egin eban berba aitak** (Atzo NOGAZ egin eban berba aitak?, itaunaren erantzuna: ZEUGAZ).

Etxe barri au GEUK egin dogu (Etxe barri au NOK egin dau?, itaunaren erantzuna: GEUK).

Diru ori ZEURETZAT da (Diru ori NORENTZAT da?, itaunaren erantzuna: ZEURETZAT).

IDAZLEENGANDIKO ARGIBIDEAK (Altube'gandik jasota)

J^{na} eztaukazu zetan parkamenik eskatu, **geuk** dagitzuguz eskerrak etorri zayakuzalako (Kid-kiño).

—**Zeuk** dakizuz nire barruko gauza guztiak (Agirre).

—**Zeubek** dakizube, neure entzula onak (PRAI Bartolome).

Neuk esan neike iñoñ baiño obeto (Agirre).

Agiri danez, galdegaia clan izenordca aditzaren aurre-aurrean doakigu, bitartean beste barbarik baga. Eta asakuntzaren beste zatiak galdegai ta aditzaren aurrekaldean edo atzekaldean ipiñi daitekcz. Adibidez:

—**NEU joan naz Bilbo'ra**, edo **Bilbo'ra NEU joan naz**.

—**Atzo ZEUGAZ egin eban berba aitak**, edo **atzo berba ZEUGAZ egin eban aitak**, edo **aitak berba ZEUGAZ egin eban atzo**, edo **berba ZEUGAZ egin eban aitak atzo**.

—**Etxe barri au GEUK egin dogu**, edo **GEUK egin dogu etxe barri au**.

—**Diru ori ZEURETZAT da**, edo **ZEURETZAT da diru or**.

Izenordea esakuntzaren erantzun nagusia ez danean, ostera, NI I... NIK IK... saillekoak erabiltzen dira. Ikusi:

—**Bilbo'ra joan naz NI** (NORA joan naz ni?, itaunaren erantzuna: BILBORA).

—**ZUGAZ atzo egin eban berba aitak** (Zugaz NOZ egin eban berba aitak?', itaunaren erantzuna: ATZO).

—**Etxe berri au egin dogu GUK** (ZER egin dogu guk? itaunaren erantzuna: ETXE BERRI AU).

—**Diru orixe da ZURETZAT** (ZEIN diru cia zuratzat?, itaunaren erantzuna: ORIXE).

Eta gorago esan dodancz, galdegaia dan berbea aditzaren aurre-aurrean ipiñi ezker, besteak non gura ta antxe, aurrekaldean edo atzekaldean idatzi daikezuz.

∴

IDAZLEENGANDIKO ARGIBIDEAK

—Aukerakoak zarie ZUEK bata bestearentzat (Agirre).

—Eta NIK... etxerako bidia galduko yuat. Ez, ez, NI ez nayuak orretara (Kirikiño).

—Txarrrik etorten badok, esango yuat **IK** eztaukuaia errurik (Kirikiño).

IRAKURRI ZER!

ZER artu gura ba'dozu, ebagi txartel au eta bialdu:

Nik, eta 'tar 'k

ZER artu gura dot.

Zuzenbidea: errian, ka-

lean zenbakian.

Ordaintzeko nire kontua Bankuan,

..... zenbakiagaz.

ARRANTZALEAK

ITXASOA ETA GABON KANTAK

SAMURRAK ETA ARIÑAK

Gabonak. Eguerriak.

Askoren oroitzua La gornutetan, Jainko Umea, Yosepe ta Mari, zerua, izarrak, erregeak, mendiak, artzainiak...

Eta itxasoa!

Sinismendunen elertian, feciedunen literaturan, kantak ugari dira ortaz.

Gabon kanta samur, gozo, biozkor eta atsegiñak.

Eta zetarako ukatu? Arinkeri ta lelokeri batzuk tartean.

* *

ITXASOAN

Erri pentsakera, siniste baten ikasia, ugari etorri ta artu dogu esaera ta kantuctan. Tradisiño luzea.

Barriri nire kezka: eta itxasoa ta itxastarrak?

Ba dirudi itxas ondoko gabon kanta egilleak esku gitxi sartu dabela orrelako oituretan.

Neguko ipar baltz eta giro gordiñak etxe illun eta barruetan lotu, bear ba da, itxastar, arrantzale ta mariñel bu-lartsu ta jatorrak,

* *

KAIETAN MAITASUNA

Ez al da esaten itxastarrak kai edo portu bakoitzean maitasun barriak billatu ta «dontzella» zoragarri ta ondobetien atzetik ibilten dakiela?

Pentsakera orren kateak, ain zuzen, ortazko bertsoen billa ipini gaitu ta euretako aurkitzera eroan. Ara:

*Izarra bufarrian,
Seneia sabelian,
a zer dontzella ederra
itxasoaren erdian.*

Or, alako baten, itxasoa gabon kanta eta jaietan.

*

ERREKATXOAN

Itxasoa oral: andi, esaten da. ELa bera ugaritzen daben errekek be, urak garbi.

Erreka baten ur garbiak ba dakar beste bertso polit au:

*Orrial airez aire,
ipartxo dultzea,
landa mintz-ederrean
doa errekaxoa.
Antxe topatu neban
Biigiña iVlaria
orraztuten eguala
buruko ulea.*

* * *

AZKENEAN

Ez daigun etsi. Jo aurrera. Ain zuzen Azkue'k bere «Cancionero» dalakoan Ondarroan batutakotzat agertzen daben abesti baten, ba dogu itxas lurrundun gabon kanta.

Irudimen luzeko bertso egoki eta ondo eratuak eurak:

*Albaolro intz-urraeian,
aitz baten ganian,
gizon bat arrantsuan
itxas basterrian.
Itandu bear bautsat
ete daben entzun
Belenen gaberdian
zer gertatu zaiingun.*

*Kañabera orrekin
zagozan gizona,
jaungoikuak daitsula
zuri egun ona;
bart sentidu al dozu
ezeren zaratarik,
edo entzun zeruko
aingeru kantarik?*

*Gizon gazte eder bat
egon jantzia zan,
bart, gaberdian legez,
emen igaro zan.
Aren kanta soñuak
pozez aditierik
gare guztia emon dot
arrain bat bagarik.*

* * *

FEDEDUNA

Sakondu, aztertu bertso au.

Orra arrantzale jator bat.

Fedearen soiñu adurretan, arrantzale biozbera a, arraiñik arrantzatu ez da be, gau guztian pozik, bere kama beraren tengada edo bultzadakin konturatu barik.

Jakiña, fedea da ori.

Fedeak ba ei dakiz sareak beteten, gertaera onez nai errukiz, Tiberiades ingurutan Apostoluekin gertatu zan antzera.

* * *

ARRAIN-POZA

Origaitik etxeetan ba dauke beste kantu berezi bat, itxastar arraiñak tartean dirala. Iñoiz sareak beteta etorri ez ba bra, sortuko ete zan?

*Gabon gabian oituten dogu
guztiok aparti on bat,
besigu, lebatz, makallau saltsa
eta bakoitzak al deuna.*

*

ZORIONAK!

Orra itxasoa. «Dontzella» eta arraiñekin gabonak gogorazten. Zorionak danori. Eta

*Kalma zuri,
ekaitz gorri
ta aize berrietan,
gabonak igaro
bake-zorionetan.*

A. ZUBIKARAI

NORA DOA GIZONA

TELEBISTAN IRAKASLE

Ez dakit zuok bere nik bezela, telebista ikusi zenuen igaro dan barikuan.

Umeen saioia bera, ezikatari buruz.

Agertzalleak, luditik zear ibillitakoa zala ta bere ikusketak azaltzen yoiala.

Australia'n egoala ikaratu ei zan, abere ta pisientzat an egoan maitasuna ikusiaz.

Ez egoala iñon, an ikusten zan beste alkarte gai oneri erantzuteko. Benetan arritzekoa.

AUSTRALIARREN BIZIKEREA

Onen ondoren eta bere ibillaldiari jarraituz argazki batzuen bitartez, Australdarrak zelan bizi diran be ikasi genduan.

Irureun millatik gora zirala orain berreun urte baña une onetan eun ta iruregei milla bakarrik, gitxi gora bera.

Gizon zuriakandik ez dabela ezer artu, whisky eta drogak izan ezean.

Erreserbetan egozala, eta apurka apurka, euren enda edo erraza ilteko zorian egoala. Onarte entzun genduana.

AZTERTU BEARRA

Baña beste ezertxo barik amaitu ebanean bere agertaldea, nire kolkoari itaundu neutson.—Zer dabil gizon orrek? Orreri buruz ezer azaldu bearrik ez eta dago ba?

Irakasle batek ez dauka zer esanik? Pistien lagunengaritasuna adurre dariola bere agoan, azaldu, eta onen ondoren, ezelako berotasun barik bere abotsean, gizasemeen zoritxarra agertu?

SALAKUNTZA

Itxi leikio trakeskeri orreri, ezelako salakuntzarik egin barik?

Zer ikasiko ete dabe gure aurtxoak ikasbideekaz? Gizona aberea baño gitxiago dala? Etxeko ta kanpoko txakurra maite izan bear dauka baña bere urko lagunagaz ez daukala ezelako ardurarik? Eta telebista ikasbide dala esango da. Onak gagoz.

Nire salakuntza beintzat, or gelditu daitela. Australiako gizon zuriak oso aurreratuak izango dira, edo olan pentsa lei norbaitek euren bizi-modu aberatza ikusiaz, baña niretzat beintzat, telebistan esandakoa egia ba-da, gizontasunean abereak baño malla beeragokoan ikusten dodaz.

EUZKADI'KO JOKABIDEAK

Asarre bizian nengoa bai Australdarrakaz egin-dakoagaz eta bai ta be telebistako gizon epel aregaz. Baña gora bera oneik ausnartzen nengoala, eztabaida zorrotz bat sortu zan nire barruan.

Eta guk emen gure errian gure Euzkadi'n, zelan jokatzen dogu?

Ez eta gabiltz Erria batera Erria bestera, baña azken baten dana geure onuragarri izan daiten? Gure ekintza batzuei buruz azterketa zintzo bat egin daigun, eta zerbait oker ba-dago zuzenera ekarrita gure ekintza guztia gizona bere mallan ipintea izan daitela.

Eta au olan ba-da ez gagoz gu bere gizona zapaltzen? Buruera oneik eta gure artean darabilguzan beste ekintza batzuei buruz azterketa zintzo bat egin daigun, eta zerbait oker ba-dago zuzenera ekarrita gure ekintza guztia gizona bere mallan ipintea izan daitela.

Beste norbaitek ez dagiala bier etzian esan.—NORA D OA EUZKADI'KO SEMEA?

ATXUTBGI'tar Bitor

GUDARI BARRIAK

*Atzo ikusi zaitut Aralar bidian
Abenda * zarraren aldaska * barria,
Lerdena, indartsua, begikor, gaztia,
ikurriña eruaten sorbalda ganian.*

*Guda ankerran, gazte asko jausi ziran
eta odol berua, ongarri mendian.
Negua igarota, oin udabarriak
Loraz estaltzen dau geure Euzkalerria.*

*Mikel Deun onduan, lengo gudariak,
Gizon urtetsuak, bertan batu dira.
Onexek bakarrik? Oi, zenbat il ziran!
Esan dot tamalez, baña neure atzian
Zuk esan daustazu: Ona emen barriak!*

UTARSUS

KONTU.KONTARI

OLENTZERO

- JENTILLEN IZARRA.
- OLENTZERO'REN IRRINTZIA.
- ANBOTO'KO MARI'REN BARRI ONA.
- IZAR ADAR-LUZEA.
- OLENTZERO BARRI-EMOILLE.
- GABON-GABEAN ETXERIK ETXE.

Antxiña, jentillak gau baten Aralar'en dagoan Ernaga zelaian dantzari ebiltzala, izar berezi bat ikusi ei eben zeruari.

Euren txaboletan jentil zar bat euken, zcruarcn eta izarren barria ondo ekiana.

Jentil zar ori itsua zan eta bere lagunai esan eutsen:

Zeozer asmetan clot, baiña ezin dot ondo ikusi. Nirc beta zabaldu egistazuez eta emon cgidazue makilla bat.

Betazalak zabaldu eutsocze-nan, auxe esan eutsen zarrak bere lagunak:

Ernaga cnaga daitela, Kixmi jaio cia eta gureak egin dau. Jaurti nagizuc menditik bera (Jentillak **Kixmi** esaten ci utsoen Kristo'ri).

* * *

Jaurti ci eben, ba euren jakintsu zarra, eta an bcko trokan il ci zan gizajoa.

Eta besteak, izar berczi arengandik iges egin eben, eta Arraz -arri* aundiaren azpira jausi ci ziran itsumutsuka.

Ez guztiak, orraitio.

Baten batek iges egin eban eta Aralar'cko oiudari biurtu zan.

Gau sorgintsuaren antza eukan gau arek.

Sortaldeko iratargiaren adarrak mendi tontorrckn, isla bat-tzak agertu eta ego-aizeak joten zituan.

Eta ara, alako baten, oiuz luze bat illun ixil aretan.

Eta mendi-tontorrcko arri-pikuak jo eta Aralar mendi-katcko oiartzunak itxartu zituan.

Bereala zama barriak, mendirik mendi luzetuten dabe, ego zantzoz ezaguna.

* *

Urrengo goizean, inguruetako artzain guztiak Olentzero'ren txa joan ziran eta esan eutsen :

—Zure deia entzun dogu, Olentzero, eta emen gagoz guztiok.

Bai, gauza aundi bat esan bear dautzuet.

—Zer da, ba, jauna?

Sarri agertu dautzucdaz gure aurrekoen misterioak. Ba misterio orrein katc-begia agertu da orain.

Zein kate-begi?

Ez giñean gu betiko galduta geratuko, Mekelats'ek ekarri euskun ondamendiaren ostean. Barri on bat emon eutsen gure aurretikoai Anboto'ko Mari'k: Gaizkatzaille aundi bat jaioko jaukala: Kixmi.

* * *

Orrelako zerbait entzunda gagoz bai .

Eta izar bat izango zala Kixmi aundi orren zantzoa. Adar luze ta argi berezidun izar eder bat. Eta atzo arratsaldean...

Atzo arratsaldean zer?

Ba, atzo arratsaaldea.a ara hegira, beti lcz, gengozaala ara non agcrtzan dan izar aundi ori.

Eta orain zer?

Ba, galdu dala sorgiñen bi-zia. Eta Aralar'cko oiulari-biurtu nazcla ni, emendik aurrera.

* * *

Zen oiuz egin bear dozu ba?

Beko ibarrctara noa, oraintxe berton, ango jentc guztiai, Kixmi jaio data esatera eta arek atera gaitula gatx guztietatik ira

—Bakarrik?

Ez! Lau lagun bear dodaz: bideak luzeak, eta lana luzea dira, errezago ibilliko naz arein bizkarraren gaiñean.

—Ez dago txarto esanda!

* *

Eta or dabil, arrezkero, Olcnczcro ori lau morroskocn lepogaiñean, ibarrik ibar eta etxerik etxe, Jaunaren Barri Ona zabaltzen:

—^

Olentzero joan zaigu mendira lanera, inlentziarakin ikatz egitera!

Aditu duanean, Jesus jaio data lasterka elorri da parte ematera.

Eta euskaldunok kristiñautu ta gero be, urtero barritzen dau, gabon bezperan, bere ibillaldia.

Etxeko tximiñetik goitik bera jatsi eta bertako subctean dagon gabonzuziko mukur-gaiñean jc-sarri eta polito-polito aparitan asten dan.

Eta etxekoan zori txarra, apari ondar gozoak eta ugariak izten ez ba'dautsocz !

Igitai zorrotza artu eta zamca ebagiten dautse guztiai!


ESTONBA'tar Manuel'ek

ORAIN

BI

MILLA URTE

- ERROMATARREN KONDAIRA-IDAZLEAK ITURRI.
- ERROMATARRAK ARMADUN INDARTSUAK, EUSKALDUNAK ZENTZUNDUN.
- EUSKEREA, LATI\AREN AURREZ-AURRE BURRUKAN, BIZIRIK.
- LATIÑETIK ARTUTAKO BERBAK GEURETU.
- SEI LEIÑU EZBARDIÑAK; BAIÑA DANAK EUSKALDUNAK.
- BEROIAK NAIKOA ZELTATU, AUTRIGOIAK NAIKOA ERDELDUNDU.
- LEIÑUEN EUSKERA EZBARDIÑETIK, GAURKO EUSKALKIAK SORTU ZIRAN.



EUSKALERRIA ERROMATARREN ALDIAN

Orain 2,000 urte Euskalerrria zelakoa zan, noraiño zabaltzen zan, errez jakin geinke erromatarren kondairak edo Iisloriak begiratu ezkeru.

Erromatarrak Euskalerrria sartu ziran —150 urte jesukrisloren aurretik—, leenengo burrukan, gero bakeak egin eta azkenean lagunak lez artu genduzan.

• *

Erromatarrak armelan indartsuak, eta kultura aundiko gizonak ziran; gu, barriz, a.rduan, menditarrak.

Euskaldunak Erromako inperio andiaren aurrean, zenluzenez jokatu eban; Erromak oen lagun egin ziran, baiña euskalduntasuna galdu barik.

* * *

Erromatarren inperiopean bizi izan ziran izkuntza guztiak il egin ziran, euskerak bakarrik: bizirik izaun eban.

Esjiaiaian, Frantzian, Beljikan, Errumaniak egiten ziran izkuntza guztiak il ziran latiñaren armapean, euskerak bakar-bakarrik, ainbeste illen artean, bizitza gorde eban.

* * *

Latiñetik artu genduzan barba asko, baina euskera-tuta, euskal-mami eginda.

Euskerazko berba asko latiñetik artuta daukaguz: Erregea, legea, errotea, eleizea, aingerua... banoa orain gureak dira, euskeratu doguzaleko.

Aurrean daukagun mapari begiratu bat egin ezkeru, argi ikusiko dogu, orain 2.000 urte-jesukristoren aldiand Euskalerrria gaur baiña askoz zabalagoa ta nasaiagoa zala.

* * *

Sei leinu edo tribu ziran orduko Euskalerrria osotzen ebanak: Ak ilania, Baskonia, Bardulia., Karistia, Beronia eta Aulrigoia.

Seiretatik, Baskonia zan leinuu k indartsuena ela nagusiena.

Gitxi gorabera, esan geinke Baskonia gaurko Napa-rraoko lurretara zabaltzen zala, baiña Bidasoa aldetik urtenbide bat eukan Kantauri Itsasora.

Gaurko G'ijuzkoa orduko Bardulia dala esan geinke.

Bizkaiaik, barriz, orduan Karistia eukan izena, baina Arabako lur zati andi bat be Karistia zan.

*

Errioxa aldean Beroniaizeneko leiñua bizi zan, baiña emengo euskaldunak zeltakin naikoa naastalula egozan.

Aulrigoiaik, Burgos eta Santanderreko lur zati andi batzuk, bere barruan artzen zituan.

Ipar-aldeko lur zelaietan, gaurko Landesetan, Aki-laniako euskaldunak bizi diran.

* * *

Sei, leiñu oneek euskaldunak ziran, baiña bakoitxak; bere a urteko euskera egiten eban.

Emendik datoz gaur guk ezagutzera ditugun euskera-ren izkelgi edo zatiak.

GOIKOETXEA'tar Iñaki

AITA ZABALA,

Oraintsu, joan dan iraillaren 24'n egin izan jako omenaldia bilbotar euskal-idazle bati, Aita Zabala prantziskotarrari.

Aurten ziran berreun urte bera mundura etorri zala, iraillaren 21'n ain zuzen.

Joan Mateo Zabala jarri eutsen izena.

Andik irurogei ta iru urtere il zan Zarautzen, 1840'n, prantziskotarren prailletxean.

Aita Zabalak bere **konbentua** itxi barik gorde eban **urte orretaraño, gobernuak isteko agindua aspalditik emona eukan arren.**

Aita Zabala **Bizkaiko** euskal-idazlerik jatorrene-takoa dogu: euskal idazle jator eta euskal-maixu argi, era batera.

Euskal-idazle lez, euskerea maitez aztertu eban eta dotore landu; euskal-maixu lez, euskal-aditzaren legeak, Bizkaiko aditzaren **morapilloak** zeatz aratu eta azaldu zituen, eta gaiñera euskerazko berba ta esaera-mordo ederrak batu.

EUSKERA, URTE PLAZARA

Euskal-idazle lez, **Bilboko** seme **au ez dogu edozelan**

Idazle ospetsu eta euskeraren arloetan lan ederrik egiñiko eleiz-gizonik izan genduan Euskalerrian Zabala baiño lenago.

Baiña, Etxepare zarra kendu ezker, eleiz-gizonai **egokien dagokiezan gaietan ekin eben ia beti.**

Ez eben literatura utsa egiten: arimen ona gogoan ebela idazten eben.

Arimen **onerako liburuak eskintzen** eutsezan euskaldunai.

Aita Zabalak bide barriak artuko ditu; litearatura utsezko arloan sartzen da, **ipuingintzan.**

Arimen onerako amaika sermoi egiña zan, bai, Bizkaiko errietan zear.

Eleiz-liburu bat baiño geiago be, besteren batzuk idatziak. Aita Añibarro arratiarranek batez be, argitaratu eta zabaldu zituen.

Baiña berak beste arlo bati eldu eutson, sail barri bati: **ipuingintzari.**

Eleizatik plaza zabalera atera eban auskerea.

ZERGATIK IPUINLARI?

«Nok esango eustan neuri ipuingiñan egingo nebala?».

Zabalak itaun au bere buruari egiten dautso, kontu eske lez.

Baiña zergaitik ez ipuinlari? Praille baten bizi-modurako ez ete da ori?

Eta berak emoten dau erantzuna.

Ez dagiala iñok uste «zeregin au deungea dala, edo bai beintzat adiñoa (badaezpadakoa) ta alperrena».

Ori usteko leukenak «irakurri begi ebanjelio santuan amar dontzellen irudia, erregegaz errenteru gaiztoen artekoarena, beargiñak mastuira eroan eban agazabarene eta beste an dagozan ainbeste. eta gero esango deust».

Jesukristok ipuiñen bidez emon zituen ainbat irakatsi eder.



ZARAUTZE

Ipuiñak mundu guztiko literaturan ondo sartuta dagoz: erri-literaturarik zabalduena egiten dabe.

Idazle guztiz argi eta jakitunak ipuiñak idazteaz ez dira lotsatu.

Aita Zabalaren egunetatik urrin barik, oso eza-gunak dira Lafontaine Frantzian, eta Samaniego gure artean, erderaz.

Euskeraz be, norbaitzuk asiak zirean arlo au jor-ratzen: Mogel osaba-llobak, bata andrazkoa eta bestea abadea.

Zergaitik ez bide orretatik jo eta aurrera egin?

Gaiñera, euskaldunak ipuinzaleak dira, Zabalaren eretziz.

«Gogoan dot oraindo zelan umetan entzun gero-zan (entzuten genduzan), aoa zabalik eta adurra erigula, Peru ta Mari'ren ipuin sustraibakoak».

Zergaitik ez euskaldunai eskiñi sustrai obeko batzuk, mamitsuago eta on geiago egiteko batzuk?

Zer gauza oberik euskalduna eukeraz irakurten zaletuteko?

BILBOTARRA



L ZAN 1840'an

ZERGAIK BERTSOTAN

Aita Zabalaren ipuiñak bertsotan dagoz.

Zergaitik egin ditu olan?

Antza, euskalduna ipuinzalea bakarrik ez, bertsozalea be badala ikusi dau.

Berak ez diño au ain garbi, baiña badirudi ori izan dauala gogoan.

Mogel zarrak olantxe, bertsotan egin zituan bere apurtxoak.

Oni jarraituko deutso Zabalak.

Bere ustez, bertsozkoipuiñak gogozago irakurriko dira eta errazago buruan sartu.

Bertsozkoak, berak diñoanez, «berezko gatza, gazigarria eta uia (koipea) izan daroe», izaten dabe.

Eta olan erabagi dau:

Bizkaiko errietan gara euskaldunak,
egin daiguzan bada ipuin bertsodunak.

ZEINBAT IPUIN

Aita Zabalaren ipuiñok galdutzat egozan, baiña non eta Parisen aurkitu zituen Azkue andiak.

Arrezkero ezagutzen doguz. Guztiz, ogeita amasei. Ogetaka ei dira Zabalarenak, amaika Mogelenak, etabat, Salaberri Ibarrolakoarena, Lapurdikoa.

Baiña emen oker-aitu bat dago.

Or esanak ez dau esan nai iñorenak diralako Aita Zabalak kopiauak direanik. Guztiak dauke Aita Zabalaren eskualdia; guztiak dira berak Bizkaiko euskeraratuak eta orretarako berak barriztau eta biribilduak.

Ogeita amaseiak Aita Zabalarenak direala esan geinke.

Mogelena dalako ipuin bat, esaterako, birritan eta neurri bitan jarri dau, Mogelek erabilli eban neurri beraan bata, eta neurri laburragoan bestea.

Salaberrirena dalakoa Leclusek bere Gramatikan argitaratu eban bakarra da eta Lapurdieraz egoana Zabalak Bizkaiko euskeran jarri dau.

Argitaratzailleak ez dabe ondo egin ipuiñok Aita Zabalarenetatik kentzeaz; guztiak berak atondu, barriztau eta biribilduak dira.

BERTSO-EGILLE BIKAIÑA

Zabalaren euskera Bizkaikoa da, eta Bizkaikorik garbi eta jatorrena.

Orretan gitxik irabazten dautse Bilboko frantziskotar oni.

Irakurri dabenak ao batez autortzen dabe au.

Eta bertsogintzan be, ez da bapere makala.

Giputz bat izan da Zabalaren bertsogintza goratzen beroena. Aitzol zanak esana da: «Beronen olerkiak bertsoz oparotsu, itzez abertsak, euskeraz iaioak, bikaiñenetakoak ditugu... Ain errexki bertso-doaia gure artean izan duenik gitxi».

Izan be, bertso-neurri gatzak erabilli arren, gaxtasun guztiak gorabebera, ederto daki geienetan bertsoa biribiltzen, berez-berez urtetan dautso. Maixu agertzen da benetan or ipuin-idazle au.

BILBO EUSKELDUNAREN AGERGARRI

Ondo egin dabe bilbotar oni egiñiko omenaldia atondu dabenak omenali ori Bilbon egiteaz eta Bilboko agintariekaz batera.

Aita Zabalak erakutsi deusku Bilbo ez dala izan eta ez dala dana erdaldun.

Bilbok beti emon izan deutso euskereari idazle eta lantzailerik.

Bilbotarra da, XVII'gn. gizaldian euskerazko lenengo gramatika idatzi ebana, Mikoleta abadea.

Aita Zabalaren egun inguruetan beste frantziskotar bat be izan zan euskal-idazlea. Abizenaz ez dauka euskaldun-antz andirik (Villalon, Montaña, La Cuadra), baiña euskeraz idatzi zituen liburu bi, argitaratzeko asmotan, asmoak asmo gelditu baziran be.

Geroago be izan da besterik: Luiz Iza, Altuna, Arruza, Izurategi abadea, Oleaga eta abar.

Aita Zabalak euron artean bere meritua, gorenengoa dauko: euskal-literaturaren arloan, sail barri bat jorratzea. Eta beragaz esango dogu: «Alan balira geiago! «Gitxiagaitik parkatu esatea lez da ori, alde batetik, baiña bestetik: «Zeuok ekin orain eta jo aurrera».

AKESOLO'K

BARRIAK

GUDALDIA GOMUTATZEN

BATZARRA

Berrogei urtetako ixiltasunari abotsa etorri jakonean, eta illunaldia eguzkiaren izpiz zulotua izan danean, pitean-mitcan doguz aulako ta alako batzarraldiak leenak gogoratzeko, gorantzi zarrak barriztatzeko, lagun-arteke bazkari ta abar egiñaz.

REBELION DE LA SAL gudasaillekoak izan giñanok be, geure meza, batzarraldi anaikorra, besarkada bero ta agur txcratsuzko ordu gozoak izan genduzan, gure kapellau gotzon uts Aita Patxi zanaren eleizan, Deustu'ko Pasiotarretan.

NON GUDARI

Aitatu daroadan gudasailleko, bata-llaikoak, Ubide'n Otxandio'n Gorbe-inguruan, Zaldibar, Ermua, Etxano, Lemoaitzean eta Zamudio-i ngurumarrietako lubakietan izan giñan.

Baiña batalloi aren *garaipen eta* artu ebazan ipurdikoak baiño beste zerb-
bat esatera nator.

«Rebellion de la Sal» izenaren ja-
torria, zergaitia.

IRAULKETA-SUNDEA

XVII mende edo gizaldian, 1631-1634 arteko urteetan, iraulketa-sun-
dea * ta usaiña nabaritzen eta za-
baltzen joian Europa'n.

España'n bertan be ba zan tutuan
piper-mina ta egon-eziña.

Aldi artan España'ko IV Felipe
errege ta Bizkai'ko jaun zanak, uric-
antzuturik eukazan kutxai bete barri
bat emon eta lege zarren aurkako

agindua iragarri eban: Gatz-baikuntza,
gatzaren enbargua ta zergak' jartzea.

1 skegi egin ebazan iru, leku agirian;
beste irurak garrotcz urkatu.

GATZ-LEGEAREN AURKA

Asarraldi gogorra ta latza sortu zan
Felipe'k egindako lege barriaren aurka
joteko, eta jo be bai.

Baiña Felipe'k berak garratzago jo
ebazan lege zarraren alde eta gatza
baitzearen aurka jagi ziran sei aurrcla-
rienak.

URKATUEN IZENAK

Emen dogu ba, Rebelion de la Sal
zanaren kondairatxua eta urkatuak izan
ziranen izenak: Morga Sarabia, Martin
Otxoa Oxarabide, Juan de la Puente
Urtusaustegi, Bizkargana anaiak eta
Juan Otxoa Larrabaster.

LANDAJUELA'tar Andoni'k

GUDARIAREN ILLOBIAN

Emaztegai batek, oraindiño bere biotzaren
berotasunaz, lora batzuk itzi dauz, otoitz bat
oroimenez diñoala:

*Zure bizitza zan erein zenduna
amets bategaitik, zure arriaren alde,
zure bizitza zan, baiña ez zenkian pozaz
loratu zan ala ez.*

* *
* *

*Lorak igartu dira, lengoko guda tokietan
eta orain golde-muturrak
zabaldu dabez erka barriak an bertan.*

* *
* *

*Beste esku batzuk garia orain ereiten dabe
baste beso batzuk nire biotza estututzen.
Ta itzi dozun errian, beste amets-biziera
barriak asi dira loratzen.*

* *
* *

*Zure bizitza emon zenduna zan,
zure odolak lur au gorritu eban,
zure bizitza zan, baiña ez zenkian pozaz,
azkenena loratu zala orde.*

(ARREGUI'tar Josu'k
gaztelcratik euskeratua)

LARRA'KO TORREA SARRIKO'N

- SARRIKO ZUGAZTIA ETA EKONOMI JAKINTZAREN ESKOLEA.
 - GAZTELU ZARRA ZUGAZTI EDERRAREN BARRUAN.
 - JABEAGANA BARRI-BILLA, ELORRIETA'RA.
 - DEUSTU'KO ERRIAREN KONDAIRA-LIBURUAN.
 - ORAINGO ARGAZKIA, LENAGOKORIK EZ.
 - A\4F.ST.AR TPA? (1\VITTT'APP TAK PTA kr'MI.ATRA SATCONA

Nork ez dau iizoz entzun. Bilbo'n, Tubiria'ren zugazti loratsuaren barririk:

Obeto gogoratu-azoteko, beste izen bal esango dogu: Sarriko berezia.

Emen aspaldion, urte batzuk dirala, Ekonomi-5akintzearen Eskola Nagusia egin dabe.

Eta zugazti loralsua joan dan udearen asieran zabaldu dabe, Deustu'tarren pozgarri eta atsegin izan daiten.

Bere luzera. ta zabalera aundiagaitik, eta batez be zugatz-pillo aundia ta zugatz ezbaridiñen mota asko dagozalako, benetan oargarria da.

Milla landara-mota baiño geiago ei dagoz zugazti orretan!

x

Bertako albo baten, ego-aldeetik- iparalderantz, etxe batek here erredola ezku-luagaz eta zenbakiz marratutako arriagaz, ibillarrien begiak eta gogoa beraganatzen ditu.

Etxe orren {;:ondairea jakitearren ara ta ona ibilli naz, gure ZER'eko irakurleai zerbait esateko gurariz.

x x

Lagun batzuen oarpidearia jarraituz, Elorrieta'ra joan nintzan, Larra'ko Torrearen jabe izan zana emen bizi dala ta.

Egin neuntsan ikustaldian, berbaldi luzea egin neban..


Beragandik entzun nituan gai batzuk azalduko dautzuedaz: gitxi dira, baiña berari jazotakoak.

* *

Larra'ko Torrearen goraberak jakiteko, «Historia de Deusto» idaztiñoa emon eustan.

Kondaira onetan ez neban aurkitu Larra'ko Torrearen argazkia baiño.

Argazkian etxe aundi ta zabal bat agertzen da eta here azpian iragarki au:



LARRAKO ARRABEITI TORREA

GAUR SARRIKO.A^r TXIKIAJV BIRREGINDA GURE ATZOKO OIN AZ A.

Emen, aldizkari onetan agertzen dan argazkiko etxeak ez dauko, Elorrieta aundiago egin zanean apurtu zan jatorrizko etxearen antzik.

x

Berak esan eustanez, urteak dirala On Klaudio Garai Gabiña'k erosiriko etxe aundi ori, Aberriko oroigailu egin eben.

Amazortzi urte eukazala erosi eban Larra'ko Arrabaili Torre aundia. Onen ondo ta inguruko lurrak 500.000 oin luze-zabalekoak ziran.

* *

Zenbat eta zenbat k ondairako e ite, gorabera ta gai jakingarriak jozo eta ziran etxe aundi onetan!

Gogoratu edo iruditu geinkez!

EGILUZE

UMEEN NOTAK

LENENGO UTSAK

Aurtengo ikastaro zati au amaitzean, opor osteko aurpegi irripartuak kezkatu agertzen dira.

Urteko leen frutuak eskuratzean, ustebako leenengo nota batzuk arduratuta izten gaitue.

Eta, beraz, asi baiño egin ez garan ezkerro, danok dogu zerbait aztertu bearra geure ume onein onerako.

IRAKASLEAK-GURASOAK

«Suspenso» bat edo batzuk ez dira inorentzat be atsegingarriak. Eurak dirala eta, postura oso ez-bardiñak artu dagikeguz.

Leenengo eta bein, nor ez da minduta geratzen ume bat bear dauan neurrira ez dala eldu ikustean?

Bai, gurasoak eta irakasleak, biak, mindutzen dira.

Baiña geienetan ez gara atsekabe orretatik igarotzen; ez dogu jokabide barririk aztertzen.

Irekasle baten jokabide errezaren erakusgarri dituzu esaldi oneik: «ez da gauza», «ez da ain argia», «al-perra da», «txori-buru utsa da», eta abar.

Era berean guraso batzuk be: «Zer egingo dogu, ba !», «maizu edo andereño barri orregaz ez da konpotzen», «igaz baiño askoz geiago eskatzen dautsoe», «gelan sartuta egoten daan beste denporaz !», eta abar, eta abar.

BETI EZ UMEA ERRUDUN

Oneik eta antzerako errazoiak ipintzen doguz bakoitzak.

Baiña geienetan ez dogu sakonera jotzen, ez dogu benetako azterketa bat egiten.

Edo egiten badogu, geienetan banan ibiltzen gara gurasoak eta irakasleak.

Beraz, ezin da azterketa ori osoa izan. Beraz, ez dagitsogun inõori errua bota, eta gitxiago umeari, sarritan ez dau izaten eta.

GURASOEN ITAUNAK

Baiña au irakurtzean bereala itaunduko daust gurasoren batek.

Zer geiago egin dagiket nik neure umearen alde?

Ez al zarie zeuok, ba, irakasleak? Ez al dakizue zeuok zer eta zelan irekatsi?

Ez al dagoz, ba, ia aldatu eziñeko jokabide batzuk goitik beera jarrita?

Orduan, zer?

IRAKASLEEN ERANTZUNA

Bai, orrela da.

Baiña irekasteko orduan (eta oraindik ez dot «EZI» itza aitatu be egin) irakasleak, bere jakituriaz gaiñera, beste zeozer geiago be kontuan euki bear dau: nori irekatsi bear dautson, zelangoa daan bere ikasle bakoitza, bere irekaskintza eragozten dauan problema-rik ete dauan umeak, eta abar, eta abar.

Eta guzti au gurasoekazko artu-emon barik ezin da jakin.

Obeto azaltzeko adibide batzuk jarriko ditut.

IRAKASLE BARRIA

Urte batetik bestera umea ire.. kasle barri bategaz edo batzuek az aurkitzen da.

Aldaketa onetan, irakaslearen izaera edo irekaskera dala eta, umeak izan dagikez problema berezi batzuk.

Gorabeera oneik aitatuko ditu etxean, baiña ez da inõiz ausartuko irakasleari ezer esaten.

Bere ikaskintza atsegingarri izan bearrean, benetako samintasun biurtu daiteke.

Au sarri gertatzen daan gauza bat da.

Gurasoak, onelako eta antzerako umearen egoeretan, asko lagundu daiketso irakasleari.

Batzutan ez da errez izaten zintzotasun osoan berba egitea eta entzutea; baiña umearen onerako daan ezkerro, egin bearrekoa da.

UMEEN MUNDUA

Bestek batzutan, umeak ikastetxe barruan ordu asko igaro arren, beste mundu baten bizi dala esan daiteke.

Ez da jakiten zergaitik, baiña liburuetatik aparte beste problema batzuk bizi ditula dirudi.

Zelango problemak ete dira?

Gurasoen artekoak?

Sendi bizitzakoak?

Neba-arreba artekoak?

Sarritan argi ez dira ikusten, baiña zerbait susmatu daiteke

umeak eurak esaten dabena aztertu ezkerro.

Sarritan enkuesta bat egitea edo egun oso baterako mendira eurekaz joatea naiko izaten da oreitariko problemak ikusteko.

Baiña ez da ain erreza ez gurasoei aitatztea, ez oneik onartzea.

IKAS-ORDU LARREGI

Beste batzutan, adiñekoei beste ordu sartzea eskatzen dautsegu umei.

Ikastetzeko orduak igaro ostean, or bialtzen ditugu ingles, txistua, dantza edo pianua ikastera.

Baiña zergaitik eta zertarako?

Etxean nekegarri diralako ala euren onerako?

Edo ez ete da gizartean, nor geiagoka, konplejoz beterik gagozalako?

Eta emen be zintzotasun aundiz jokatu bearra dogu.

Ainbesterañõ lanpetuta, ez al ditugu geuk «suspenso» bidean jartzen?

ETXEAN IKAS-LEKURIK EZ

Beste motako eragozpenak be ba dabez umeak ikaskintzan.

Esate baterako, sarritan ez dauke etxean ikasteko toki egoki bat.

Geienbaten gure etxeak txikiak dira, eta sarritan gela baten gauza bat baiño geiago egin bearra izaten da.

Txikiak izanaz gaiñera, praktikotasun gitxiz jokatzen dogu: etxerik geienetan izaten da egon-gela, bat, eta gitxienetan, ostera, ume-entzako ikasgela egoki bat.

Naiago izaten da egongela apain bat, eta ez ikasgela bat.

Etxe zatiketa onela egiñik, zenbatetan ikusten da, esate baterako, aita telebizioari begira eta umea liburuak ikasten dauazalako egi-ten !

Eta zenbatetan sukaldean aita eta ama alkar-izketan, eta umea alkar-izketa entzuten liburuak ikesten ditualakoan!

NORBERA LAGUN

Arratsaldeko ordu orreitan giro egoki bat barik (eta al izan eskero norberak lagundu, obeto) ezin dautsogu umeari beste munduko gauzarik eskatu.

Ala... geuk ikasiko ete geunke patxadaz egoera orreitan?

Oneik lako beste abidibe asko eta asko aitatu daitekez, eta aitatu bear litzakez gurasoen eta irakaslearen artean.

Bestela sarritan *nota txarren* errudun gurasoak eta irakasleak baiño ez gara.

KILI-KILI ALDIZKARIA

Idazlan onek urtetzean, euskerazko aldizkari berezi bat salgai egongo da ziur asko. Aldizkari berezia esan dogu umeentzako izango dalako. Bere izena Kili-Kili. Aldizkari onen asmatzaillea ta zuzendaria dan Retolaza'tar Jose Antonio, euskalzaiñak, errebista barri au zelakoa izango da asalduko dausku:

Noiz sortu jatzu umeentzako aldizkaria egiteko asmoa?

Orain 12 uric dala bururatu Jaian, Madrileko psikopedagogia ikastaldi batean. Urrango urtean argitaratu neban Bilbo'n San Anton Parrokiko katekesis izenean, baña ez zan legezkoa... la bildur izan nintzan eta Euskerazaleara jo neban babespe billa. 1968'an euren bidez baimenak eskatu nebazan baña ezin lortu, urteak joan eta urteak etorri, azkenez, orain urte bete lortu nebazan.

—Baimenak igaz eskuratu ba zenuazan, zergaitik eztozu ondiño aldizkaria atara?

Umeenlza/co aldizkari bat ataratzearreza zalakoan nengoan baña aldizkari on bat ataratzeara oso gatxa da, nzarraskilariak, «gionistak» eta abar billatu egin bear dira te Euskalerrian onelakorik aurkitzea zailla izan da, umeentzako dibujanle berezirik ez tira egon eta... Nik neuk nai izan dot lenengo maillako aldizkari bat egin, lenengo maillakoa la Europa'ko maillan. Onelakoa egiteko, Europa la Amerikalako beste aldizkari-etxeetara jo bear izan dot, baña orreinkana urreratutea ez da erreza, a'tu-emonelan jarri ta kontratuak egin ta ordaindu, ta jakiña, gauza onek denbora luzea eroaten dabe eta baita diru asko ere bai.

—Orain dana gertu dozu?

—Bai dana prest dago, gaiak gertu dagoz.

—Zelakoa izango da?

—Umeenlza/dan ezkeru polita la in-terresgarria, inidiz dolorc la margoz jantzia.

Euskal-jakintza gaiak- izango dauz, ja-kingarriak, sarilretak, izkirimiriak ela abar. Onez gañera, agertuko diran «personaje» artean onako auxek izango dira:

Ludi osoan ezaguna clan Pantera Rosa.

Aslerix.

Robin Dubois.

Mortadelo la Filemdn.

Zipi- ?ape.

eta abar...

—Zelako euskera erabiliko dau aldizkari onek?

Aldizkaria a fabelatze arazoa osotzeko dan ezkeru euskera errezan egingo dot, bizkaieraz eta gi^puzkeraz, alfabetatze arloan errezenera jo dot beti, errezena norberen euskalkian, oraingoz gipuzkeraz eta bizkaieraz. Gero, bear bada, beste euskalki batean esate baterako Baztanerako euren euskeran egin gura neuke baita Ipar-Euzkadikoak ere ardura aundia emoten dauste.

Aldizkariaren zabalkundea egitean ikastola balzuelako andereño batzuk «crregu» bat egin dauste: Euren ikastoletan euskera batua erabiltzen daben ezkeru, eurentzako beste ediziño berezi bat ataratzeko euskera batean. Eskabide ori naiz eta a fabelatze barrukoa izan ez prest nago orretara be egiteko Gana 2.000 arpidedun barri gitxienez bear dodaz orretarako.

(Kili-Kili naiz eta izatez bizkaitarra izan prest dago beste edozein euskalkin ediziño bereziak egiteko. Nik itaun bat egingo neuskie euskalki orreitan eta euskera batuan idazten dabenei: Gertu egongo ziñakie bizkaieraz idazteko? Kili-Kili'n dozue ereduja).

—Noiz urtengo dau?

11 onelan, azillan. Aldi Galen illerokoa izango da baña gero amabosterokoa ta al danean asterokoa.

—Zenbat balioko dau?

—30 pezeta ale bakoitzak. Urteko arpi-detza 350 lauerleko.

—Irabazten dozu?

—Irabazi ez, galdu egiten dot.

Aldizkari au artzekoa zer egin bear da?

Eskatu znzenbide onetara:

Kili-Kili

Somera, 10-2.º

Bilbao-5

Eskerrikasko Jose Antonio ta zorionak emon bear dautzudaz azkenik 12 urteko ametsa lortu dozulako Euskalerriko umeen onerako ta euskeraren onerako.

ZANGRONIZ



EUSKALERRIA

G U R E B A S O A K



EDERTASUNA BEARREZKOA

«Ogiaz bakarrik ez da bizi gizona» Kristo'k esan eban lez.

Egi aundia da gizona ogiaz bakarrik ez dala bizi, orrezaz gaiñera, osasuna, maitetasuna, lana ta beste gauza asko bear ditu gizonak. Euretatik bat, nire eritxiz, edertaduna da.

Inguru ederrak **gizonaren** bizia **poztu** egiten dau. **Euskalerrri** polit **ederra emengo gizonentzat pozgarri aundia** izan oi da, eta ez **emengoentzat** bakarrik, beste lurralde leorretatik onuntza etorten diranak be, emengo edertasuna ikustean, arrituta geratuten dira.

BASOEN EDERTASUNA

Euskalerrriaren edertasun bat mendi ta basoak dira.

Baiña basoak? Len ala orain ederragoak?

Urte askodun gareanok beintzat, gure basoak len orain baiño ederragoak zirala uste dogu.

Lenago basoak geien baten, aritz, pago, ta gaztaiñaz baterik egozan, ainbat orlegimota ezbaridiñez jantziak, zozo, birigarro, uso-tortoil ta beste txori askoren abiz jantziten ziran udabarrian, eta ango txorien abestu-bearrak ez euen amairik. Zugatz-azpiak bedar bigun eta odolgi leunez betetan ziran, bertan etxunda egotea bai zoragarria udako egun beroetan!

PIÑUEN ILLUNTASUNA

Ori lenago jazoten zan. orain ostera gure basoak ia ia piñudi bakarrik biurtu dira.

Piñuen margoa be orlegia da, baiña lengo arbolen orlegia baiño illunagoa.

Piñu-azpian ez da aziten bedar bigunik, ez eta odolgi leunik, bai ostera arantza ta sasiak ugari.

Bertan gordeten dira aseri, suge, ta beste pizti galgarri asko be.

Lengo basoetan beiak, ardiak ta zaldi ta beorrak be euren atsedentoki ta janari-lekuak ba eukezan.

Orain ez dago olakorik.

PIÑUAREN ONTASUNAK

Ez diñot piñua gauza txarra danik, ez.

Piñuak neguan ez dau orririk galtzen, lengo zugatzak bai.

Piñua ariñago aziten da, orregaitik bera ipinten da, dirua ariñago ateratearren.

Aritz, pago ta gaztaiñak aziteko urte asko bear ditue, baiña edertasuna ugarituteko eurak dira obeak.

Entzun dot, an-or-emen, eukalitu, abeto ta beste zugaitz batzuk ipinten asi dirala.

Ezin agindu gure gizonai baso guztiak lengo zugaitzez bete dagiezela, baiña beintzat onuragarria izango litzake an-or-emen pagadiak, areztiak ta gaztaiñadiak ipintea. Euzkadiko inguru edertuteko.

Gaiñera, gure mendietan lur gorri uts-utsak, zugatz bat be ez daukienak agirian dagoz.

Or daukagu tokia gure antxiñako zugatz bez betetu ta inguru len baiño be ederragoa izan, dagigun.

Geure aroaz eta geure bizitzaz bakarrik ez gara arduratu bear, geure ondorengoai be inguru eder ;bat emon baiño.

* * *

ERROMANTIKU GARA

Esan dodan guztia nire irudipen bat bakarrik izatea ba leiteke, gaztearoko gauzak ames eragiten daustelako.

Orain be, Elorrio'ko udala-ondoko Kanpanzar, Urbasa, Orreaga ta Aralar— inguruko pagadi ta ariztiak ikustean, pozezko oldozpen asko susmatzen ditut neure barruan, benetan ederrak eta amesgarriak diralako.

Gaztetxotan, udaguenean neure erriko basoetako tantapean jarririk, ego-aizeak eraginda zugatz-ada-rrak eta orri legorak egiten eben murmurra entzutean, susmatzen neban gozotasuna ta urtubearra susmatzen ditut orain be gure antxiñako erako zugazti bakarrak ikustean.

Apur bat, biotz-bera ta erromantiku izateak be balio dau bizitzarako!

GALLASTEGI'tar Kauldi'k

IDAZLEAK ETA BIZKAIERA



«Barria eder egik» esaera zarra gogoraw eragin dauSKU oraintzu gure aspaldiko adiskide ta idazle jator clan Mikel Zaratek.

Esaera ori burutik kendu ezinik egon nintzan Urillaren 15'garrenean eta urrengo Domekan, Mañu eta Urdulizen, Garitaonaindia, tar Gotzon abade ta idazle izan zanaren gorrutaz egin-dako Arteza ta omenaldietan.

Urduliz'cn omenaldia «laikotua» izan zan, bateon-batek laprastada ikaragarria egiñaz, kanpoan egitekoa zan Mezea debekatu, baiña or konpon Eleizako arduradun eta erantzuleak! Aztatza obe.

Gure artcan «barria eder egiten» iñork alegiñak egin ba'ditu gure Gotzon adiskidea izan zan bat,

Erria ta gaztedia biotz-biotzez maitatuz aurrerakoia zan bere izakeran eta eguneroko eginkizuntcan.

Abade lez, besoak zabal-zabal ebazala bardin besarkatzen ebazan goikoak eta bekoak, gorriak eta zuriak.

Erritar lez maitcago ebazan erriaren alde geien emoten ebanak, zelako taldekoak ziran inoz itandu barik, geienan be ti «barria eder» egin guran...

Baiña Gotzon'ck ez eban iñioiz diktadurarik edo diktadorerik onartu

eta cliktadurak cz dira beti zarrak, diktadura «barriak» be eldu jakuz azken urte oneitan.

Diktadura «barri» au sortu zanean, aurrerakoi zan gure Gotzon'ck bizkarra emon eutson...

Zergaitik?

Ba gauza «barri» guztiak eder egiterik ez dagolako, ezelan be.

Axular'en denporako euskaren antzera, laister, «Abortoa» ta «eutanasia» be «barri tzat» aurkeztuko daukuez. EZ_ dabe zalaparta makala atarako gure artean.

Guk, nik-neuk beintzat, ezin izango dot olakorik eder egin, naizta beste kontzientzia errezpetatuz, zigorrik ez errotearen alde egon!

Len aitatu dogun diktadurca, Gotzon'ck onartu ez eban diktadurca, geroago ta nabarmenago, geroago ta gogorrago ezarri nai daukuc bizkaitarreai, zorrioneko «batua» ren diktadurea.

Eta emen dago kakorik luzeena.

Euskal idazleok (eta erdi idazleok) ez dogu ogi askorik jan al izan, orain arte beintzat, gure izkuntza lantze eta crabiltzeatik.

Mikel Zarate lako idazle jaio banaka batzuk lortu dabe sari txikerren bat,

GOTZON'EK (Bean Ezquerrckoa) ERRIA TA GAZTEDIA MAITE EBAZAN



baiña geienak, batez be aize «berriequin ados» etorri ez gareanok «a bapez» idatzi dogu.

Zelan dirua irabazi?

Cure aldizkariak txirotasun gorrienean, noiz ilgo dagozan bitartean... zelan lanak diruz ordaindu?

Eta diruz indartsu ta dizdiratsu agertu jakuzan eguneroko biak «diralako batuak» erabiltzea erabaki dabe, erriko euskera ta batezbe bizkaiera, baserriko tresna alperrikotzat albora jaurti ondoren.

Jokabide ori salatu gendulako kristonak entzun bear izan genduzan guk euskera «hobby» tzat artuta geunkalr: ta gure lagunnen zapaltzaille izatera eldu giñala esateraiioke.

Bitartean bizkaiera zer?

Batertute, batuzaleen diktadura pean itota edo obeto esateko «eder» egin bear litzakene «eutanasia» bidez erail zorian!

Barregarriena baiña ez da ori, barregarriena edo negargarriena obeto esateko, euskeraren «abortoa» ta «eutanasia» egiten dan «kliniketako» diru cmoilleak, «accionista»k, euskera errikoaren maitale dirala geienak beintzat

Agertzen diran eriotz-oar edo eskolak lekuko!

Baiña «eder» egin bear doguzan gauzen artean, bear bada, «masokismoa» be egongo da, an da, norbere Duman miñ artuaz atsegintasuna artzea.

Gu, ez! Naiz eta «karka» tzat salatuak izan, inguruko imperialkeriari «surrea emonaz eta Arana Goiri'ri jarraituz, geroago ta bizkaitarrago, izango gara. Au be Mikel adiskide «barria eder» egitea izango da, lorarik «mon ez dauan «batua» landara «srrotza, amar urte garrenean zar egin da ta.

ARENAZA'TAR YOSU'K

ESTONBA'TAR MAÑUEL, SARIDUN



ZER'eko idazkolea osutzen dogunok, eta irakurleak be bai, poz-bide bat daukagu: Gure Lankide Estonba'tar Mañuel'ek sari eder bat irabazi dau: Bilbo-urri'ko Aurraski-Kutxa'ren «AZKUE» saria.

Mañuel'en idazlanak illero agertzen dira gure ZER'en. Bereak izaten dira GIZANDIAK eta KONTU-KONTARI idazpuruz agertzen diranak.

Ba genkian Mañuel idazle ona zana eta orain beste batzuk be aintzat artu dabe. ZER'en izenan beraganatu gara, zorionak emon eta alkar-izketa astilsua egiteko.

ZORIONAK!

Z.—Arratsaldeon, Mañuel!

M.—Kaixo, lagun!

Z.—ZER gure aldizkariaren izenean natortzu, irabazi dozun AZKUE sariagaitik zorionak emon eta zugaz alkar-izketea egitera.

M.—Ederki! Eskerrik asko!

SARIKETAK

Z.—Zariketa edo txapelketa oneik ontzat artzen dozuz? Epaiak zuzenak dirala uste dozu?

M.—Sariketak gure elertiaren kondairan ugari izan dira eta onuragarriak dirala uste dot. Idazteko bultz egiten dabe.

Epaiak beti ez dira izaten norberaren eritxikoak, Zaiña joko lez artu bear dira eta jokoan galtzea ta irabaztea biak jazoten dira.

IDAZLE?

Z.—Noz asi ziñan idazten?

M.—Beti izan dot orretarako jokerea ta griña. Gaztetan idatzi neban, erderaz, Etxepare gaztearen bizitza eta arrezkero beti ekin dautsat lan oneri.

Z.—Esan egidazuz zeintzuk diran idatzi ta argitaratu dozuzan idaztiak.

M.—Amaika idatzi dodaz eta bat bakarra argitaratu: ABADE IDAZLEAK

Izartxu elebarria, orain amazortzi urte dirala.

Z.—Eta idatzita daukazuzanak, oraindiño argitaratu barik?

M.—Amar dira guztiz: Euskaldunen zer-nolak, Eusko arranoa, Arriak esana, Urdanibi'ko Txomin, Euskalerra'ko eun ipuin zar, Euskalerra'aren kondaira, t.a.

Z.—Eta liburu oneik zergaitik ez dozuz argitaratzen?

M.—Batzuk ez dira on-onak. Orduan ontzat egin arren, gaur ez jake irarkolarik zor. Beste batzuk argitaratzeko lakoak dira, baiña dirua bear!

SARIKETAKO GAIA

Z.—Zein gai erabili dozu sariketa onetan?

M.—Emakumeen gizarte-lana euren baztertxutik egiña. Zortzi emakumea bizitzea ta izaerea agertzen dodaz eta oneik dira:

Legazpi'ren alabaren eta aitaren artuemonak.

Lope de Agirre'ren alabea, Arjentiña'ko ibiltaldia.

—Belzuntze'ko Madalen, Marzilla'ko izurritean illa.

Sabiñe-errot, bertsolaria, Peillo'ren antzera.

Artetxe'tar Jose'ren emaztea.

Mari Alarguna, au nere amaren irudia.

Alargunaren lanak.

—Gure Poza, arrantzale arteko giroan.

—Saseta Gudari buruaren andregai, Ovie-do'n il zan Saseta baiña bere emaztegia bizi da oraindiño eta ikastoletan lanean diardu.

MEDIZALE

Z.—Mendi-zalea be ba zaitugu. Mañuel! Ain zuzen oraintxe zetozen menditik. Zer naiago, Mendi-goizale ala idazle izatea?

M.—Biak alkartu leitekezela uste dot. Eta nigan beintzat ondo alkartzen dira, batak besteari kalterik egin barik. Izadiaren maitetasuna bear dau idazleak eta idazlearen ikuspegi zeatza mendizaleak.

«ZER» ZELAN?

Z.—Gure aldizkari onetan ondo ezagutzen zaitue eta zure kondaira-lanak eta ipuñiak atsegin Jakez irakurleai. Zuk zer deritxazu gure ZER oneri?

M.—Euskal-kultura erri zeari emoteko bide egokia dala uste dot artu doguna, erriaren izkeraz eta erraz irakurteko eran. Eta naikoa dotore!

ABADE IDAZLEAK

Z.—Zu abadea ta idazlea zara eta zu lako abade asko izan dira, dakizunez, gure elertiaren kondairan. Zergaitk ainbeste abade?

M.—Bai. Ori ezin ukatu leike. Eta zioak oneik izan leitekez:

—Abadeak zer-esana dauke, mezua.

—Idazleak, erri-zaletasuna, erri-miña, bear dau, eta abade askok dauke ori.

—Idaztea on egitea da, eta abadeak orretara eziak dira.

—Abadeak itz egin bear izaten dau, orretarako izkuntzea eskuratu bear.

—Abade askok astia izaten dabe ugari.

Z.—Ondo alkartzen dirala uste dozu abadetzea ta idazle so o

M.—Bai. Oso ondo. Bata bestearen eske dagoz.

IRAKURLEAI

Z.—Gure irakurleentzat ezer?

M.—Asko irakurri ta idatzi dagiela. Orixe da kulturea zabaltzea, ez da naikoa arpedun izatea. Kendu nagieria ta ekin!

Z.—Eskerrik asko, Mañuel! Eta barriro be zorionak ZER'eko idazle ta irakurleen izenean.

Orritxu baten bidez bazkide ba-koitxari dei egin ondoren, alkarte onen diru-arazo, egiñak, ekinak eta besterik bazkideen aurrean argitaratu eta, zuzendaritza barriztatuteko, batzaldia ospatu zan Indautxu'ko Karmen eleizako aretoan, azillaren 3gn. egu-nean.

Euskerazaleak bazkunari saka egin eta ateak zabalagotuteko, beatza-riak bazterreratu eta azpiratzen-lanari urteatan buru, belarri emonik arduraturik bizi izan diranak, ordezkotza baten eskuetara aldatu daitean gura izan dabe, urtean zear bizka-rraan euki daben zeregin arduratsua.

* * *

Joan dira, baiña urrin ez, betirako be ez.

Lengoetatik oraingoetaraiño dato-rran katea ez da ausi.

Eta zuzendaritzako maia ingura-tuko daben burukide barriak, gaiztasun eta eragozpenik aurkituko ba'lebe,

◆
**EUS
KE
RA
ZA
LEAK**
◆

beti izango dira tinko te zur, lagunta-suna eskintzeko.

Beioakiez ba R. Urkijo, J. Oleaga, J. A. Montiano, J. M. Makua, A. Zalaia, K. Goñi ta M. Arandia jaunai, euskeraren eta Bilbo ta in-guruetako eundak euskaldun barri eta euskerazaleak'en etxean ikasten diarduen ikasleen aldetik, euskal-txingarrezko millak esker eta agur txeretsu.

* * *

Oraingo barriak, one emen: Iñaki Zubiri, Xabier Peña, B. Ibarra, Kepa Dañobeitia, M. Olazar, J. A. Retolaza, X. Elgezabal, I. Egurrola, Fernandez Karnele, Anton eta Arrieta.

Lengoetakoak 4, barriak zazpi.

Soin baten alkartu egizuez zarren zurtasuna ta barrien irakiña.

Atzera ez adi!

Aurrerantz jo, beti ta beti!

LANDAJUELA'tar Anton'ek

ZER DA:

Koltza? — Burdi-gaiñean, zeozer jausi ez daiten, ipinten dan sarea.

Dantzut? — Entzuten dot.

Bipil? — Gogotsu adoretu.

Abenda? — Aba edo gurasoakan-diko gorputz eta gogo-izakerea, errazea.

Aldaska? — Abarraren kimu bar-ria edo lurrean sartzeko abar-landerea.

Belaunaldia? — Gizaldia, aldi ba-teko gizonen denporea, Gura-soak eta seme-alabak belaunal-di bi dira.

Basaberea? — Basoko aberea, piz-tia.

Kokatu? — Jarri, ezarri. Txoria abarrean kokatu da.

Leiatsua? — Gogotsua. Erritar leiatsua da.

Mokorra? — Zugatzaren enbor-zatia, edo antzeko arri-zatia: Mukurra.

Nasa? — Mollea, kaiaren zati bat.

Murrua? — Orma aundia, moko-rruz osotua.

Neurkiña? — Neurtzeko artzen dan zatia. Metroa, litroa...

Eraltea? — Zabalduez indarra galtzea, diruaren «infanziñoa».

Arka? — Orma-bitartea.

Funtsezkoa? — Sendoa, oiñarri-duna.

Sundea? — Usaiña, txarra naiz ona. Erre-sundea dago emen.

Zergea? — Laterriak bere bearki-zunetarako erritarrak kentzen dautsen dirua.

Iraslea? — Lan bat edo erakunde bat asi-azo edo irasiten dauana.

Triku-arria? — Euskaldunak Artzain-aroan, bi milla urte Kris-to'ren aurretik, egin ebezan illobiak. Beste erri batzutan be ba dira eta dolmen esaten dautsee.

Isla: Mendi-gaiña ta zeru urdiña alkartzen diran lekua. Argia-ren ditzizari be esateno jako.

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

*Olako eginbearrak artzera,
oitu zaitte.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.*

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-
goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan
aurrerapen gurariai egiteko erantzuna emoteko baiet-
za agertzen gagoz.

Esaterako, dana gartu daukagu eperako dirua ezar-
teko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo dogu-
zan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Biz-
kai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorki-
zun ederrago bat egitea gura dauela
adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear do-
gu.

Biar emen izango da.



BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA

Geroa, bertan daukagu.

